

2025
IRAILA-ABENDUA

Prestakuntza- Jardueren Programa



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

Prestakuntza-Jardueren Programa

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak 2025eko bigarren seihilekorako prestakuntza-proposamen berri hau aurkeztuko du. Proposamena egiterakoan, edukien eta formatuen gainean egindako iradokizunak jaso ditugu, denboran zehar helarazi dizkiguzuenak nahiz plangintza egin aurretik urtero bidaltzen dizuegun galdetegian jasotakoak.

Gero eta pertsona gehiagok eskatzen diguzue etengabeko prestakuntza askotarikoa eta malgua izatea, norberaren eta profesionalen errealitateetara egokitzen dena, eta, horri erantzuteko, tresna baliagarriak eskaintzeko pentsatutako programazioa diseinatu dugu, kolektiboaren garapen profesional eta pertsonalerako aplikagarriak eta bideratuak diren tresnak.

Gainera, azpimarratu nahi dugu **Elkargoak prestakuntza guztien kostuaren %60 eta %100 artean finantzatuko duela**, era horretan berretsi egingo baitu kalitatezko prestakuntza modu ekitatiboan eskuratzeko eta elkargokideei laguntzeko duen konpromisoa.

Halaber, gogorarazi nahi dizuegu eskaintza hau osa dezakezuela Gizarte Langintzako hainbat Elkargo Profesionalek eta Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak antolatutako beste jarduerarekin. Jarduera horiek gure sare sozialen eta asteko buletinaren bidez zabaldu ohi ditugu.

Azkenik, zuei interesatzen zaizkizuen gaiei edo formatuei buruzko iradokizunak bidaltzen jarraitzera animatzen zaituztegu. Lanean jarraitzen dugu eskaintzen dugun prestakuntza eta zuen benetako beharrak lerrokatuta egon daitezen.

1.**ENPLEGUAREN
BILAKETA AKTIBOA**

- **ENPLEGUA BILATZEA ETA IRTEERA PROFESIONALAK GIZARTE-LANEAN**

CRISTINA LOPES
2 Ordu
ONLINE
2025ko IRAILA

2.**GARAPEN
PROFESIONALA**

- **NAFARROAKO OSASUN MENTALAREN SAREKO GAILUAK ETA BALIABIDE SOZIOSANITARIOAK**

GLORIA ELGORRIAGA ETA JOSEBA V. GOIKOETXEA
3 Ordu
AURREZ AURREKOA
2025ko IRAILA (TUTERA)
2025ko AZAROA (IRUÑA)

- **LARRIALDIETAKO GIZARTE-LANEKO PRESTAKUNTZA (ESPEZIALIZATUA)**

HAINBAT
70 Ordu
ONLINE - AURREZ AURREKOA
2025ko IRAILA - 2026ko OTSAILA

- **NORBERAREN KONTURAKO LANGILEENTZAKO ALDERDI FISKALAK ETA ADMINISTRATIBOAK**

ARTEAN AHOLKULARITZA
2 Ordu
AURREZ AURREKOA
2025ko IRAILA

- **GIZARTE-LANA. TEORIATIK PRAKTIKARA. INFORMAZIO-PILULEN ELKARGO ARTEKO ZIKLOA**

INTEGRA OPOSICIONES
18 Ordu (2 o/u)
ONLINE
2025ko IRAILA - 2026ko MAIATZA

- **TAILERRA: LIDERGOA KUDEATZEA ETIKOKI ERAGINA IZATEKO ETA KONBENTZITZEKO**

JESÚS MARI ELIZALDE
12 Ordu
AURREZ AURREKOA
2025ko URRIA

3.**ONGIZATE
PROFESIONALA**

- **ZAINTZEN KUTXA**

NATALIA NAVARRO
10 Ordu
AURREZ AURREKOA - ONLINE
2025ko AZAROA

(*) OHAR ARGIGARRIAK

ENPLEGUAREN BILAKETA AKTIBOA

1

“Enplegua bilatzea eta irteera profesionalak gizarte-lanean”

CRISTINA LOPES

ONLINE SINKRONIKOA

2 ORDU

GUTXIENeko TALDEA:

10 pertsona.

EGUNA:

2025eko irailak 24.

ORDUTEGIA:

17:00-19:00

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko apirilak 17.

PREZIOA:

6 € elkargokideek edo Gizarte Langintzako ikasle aurrekolegiatuek.

15 € elkargokideak ez diren pertsonak.



Enplegua bilatzea, berez, lana da. Behar bezala prestatzeak honako hauek bezalako oinarrizko gaiak eskatzen ditu: xede-erakundeak, espezializazioak, aukerak, tresnak eta forma egokiagoak ezagutzea lan-helburuetan arrakasta lortzeko.

Prestakuntza honetan, zeregin horri lotutako funtsezko alderdiak bilduko dira.



+Info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

1

“Nafarroako osasun mentalaren sareko gailuak eta baliabide soziosanitarioak. Gizarte-laneko zerbitzuak”

GLORIA ELGORRIAGA ETA JOSEBA V. GOIKOETXEA

AURREZ AURREKOA

3 ORDU

TOKIA:

TUTERA: Sofia Erregina Ospitalea.

IRUÑA: Elkargoaren egoitza.

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-20 pertsona.

EGUNAK ETA ORDUTEGIA:

TUTERA:

2025eko irailak 11.

16:30etatik 19:30etara.

IRUÑA:

2025eko azaroak 6.

17:00etatik 20:00etara.

IZENA EMATEKO EPEA:

TUTERA: 2025eko irailak 4.

IRUÑA: 2025eko urriak 30.

PREZIOA:

9 € elkargokideek edo Gizarte Langintzako ikasle aurrekolegiatuek.

22,5 € elkargokideak ez diren pertsonak.



Nafarroan, osasun mentalaren arloko osasun-arretaren ardura Nafarroako Osasun Mentalaren Sareak (RSMNa) du. Osasun mentaleko zerbitzuek arreta integratua eskaintzen dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (Osasun Departamentua) ildo estrategikoetan.

Nafarroako osasun Mentaleko hirugarren Plana (2019-2023) lau jarduerar datzetan oinarritzen da:

- Eredu komunitarioa indartzea
- Detekzio eta esku-hartze goiztiarra
- Asistentzia-aldakortasuna murriztea
- Pertsonarengan oinarritutako arreta

Bestalde, Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Mentaleko Estrategiak jarduerar datz horiek zabaltzen ditu. Ordenamendu juridikoan izandako aldaketekin, gaixotasun mentala duen pertsona eskubidedun eta familiekin batera parte hartzeko subjektu gisa kokatzen du. Asistentzia eta zaintzekin jarraitzeko beharra ere aipatzen du, eta elkarriketa eta entzute aktiboa harreman terapeutikoaren eta osasun mentaleko esku-hartzearen funtsezko elementu gisa aurkeztzen ditu.



+info



Izen-ematea Tutera



Izen-ematea Iruña

GARAPEN PROFESIONALA

2

“Larrialdietako gizarte-lana (Especializaturia)”

**ITZIAR MORENO
CRUZ ROJA
MONTSE MAS
CHEMA MORAN**



ONLINE

AURREZ AURREKOA

70 ORDU

GUTXIENeko TALDEA:
10 pertsona.

IZENA EMATEKO EPEA:
2025eko irailak 10.

PREZIOA:

30/35 €. Mantenu soilaren edo mantenu eta ostatuaren kontzeptuan, Arbizuko kanpinean egindako aurrez aurreko prestakuntzari dagokionez.

Kolegiatuentzat soilik.

Lehentasuna izango dute larrialdi-taldeko kideek.

BLOKEA	IZENBURUA	IRAKASLEA	FORMATUA ETA EGUNAK
1	Kontzeptuak eta Legeria espezifikoak	ITZIAR HERRERO	ONLINE Irailak 25 eta urriak 2, osteguna 16:30 - 20:30
2	Larrialdien aurrean erantzuteko mekanismoak	ITZIAR HERRERO	ONLINE Urriak 9, osteguna, 16:30 - 20:30 Urriak 16, osteguna, 16:30 - 19:30
3	Oinarrizko lehen sorospenak	GURUTZE GORRIA	ONLINE Azaroak 5, asteazkena, 16:30 - 19:30 AURREZ AURREKOA Azaroak 5, asteazkena, 16:30 - 19:30
4	Esku-hartze soziala Larrialdien arloan	MONTSE MAS	ONLINE Astelehena eta asteazkena: urtarrilak 19, 21, 26 eta 28. 16:30 - 19:30
5	Esku-hartze psikosoziala krisian	CHEMA MORAN	AURREZ AURREKOA. Arbizuko kanpina* Otsailak 21, ostirala, 17:00-21:00 eta otsailak 22, larunbata, 10:00-14:00 - 16:00-20:00

Esku-hartze soziala larrialdi-egoeretan funtsezkoa da, eta etengabe aldatzen ari da Gizarte Langintzaren barruan. Gizarte-langileek zeregin nagusia betetzen dute berehalako arreta psikosozialean, bereziki kalteberak diren pertsonak eta kolektiboak identifikatzen, eta baliabideen koordinazioan, krisi- edo hondamendi-testuinguruetan erantzun azkarak, gizatiarrak eta

eraginkorrak emateko. Prestakuntza espezializatu hau sortu da gure gaitasun profesionalak indartzea beharrezkoa delako prestakuntza teknikoak, komunikazio-trebetasunak, emozioei eusteko gaitasuna eta sareko lana eskatzen dituen eremu batean.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

3

“Norberaren konturako langileentzako alderdi fiskalak eta administratiboak”

ARTEAN AHOLKULARITZA

AURREZ AURREKOA

2 ORDU

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-20 pertsona.

TOKIA:

Elkargoaren egoitza.

EGUNA:

2025eko irailak 29.

ORDUTEGIA:

17:00 - 19:00

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko irailak 22.

PREZIOA:

Doan. Elkargokideentzat eta aurrekolegiatuentzat bakarrik. Lehenetasuna izango dute NGLEOko bitartekari eta peritu sozialen zerrendetako pertsonak.



Gizarte Langintzan gero eta gehiago dira lanbidean askatasunez jardutearen alde egiten duten profesionalak. Errealitate horrek oinarritzko ezagutzak eta ezagutza eguneratuak izatea eskatzen du norberaren kontura lan egiteak dituen zerga- eta administrazio-betebeharren inguruan.

Modu horretan, ikastaroaren asmoa da orientazio argia eta praktikoa eskaintzea,

jarduera profesional autonomo bat hasteko edo mantentzeko behar diren urratsei buruz, eta izapide, zerga eta antolaketa administratiboaren inguruko ohiko zalantzak argitzea.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

4

“Gizarte-langintza.
Teoriatik praktikara.
Informazio-pilulen
elkargo arteko zikloa”

INTEGRA OPOSICIONES

ONLINE SINKRONIKOA

2 ORDU PILULA BAKOITZA

GUTXIENeko TALDEA:

10 pertsona.

EGUNAK:

Gizarte Lan Sanitarioa:
2025eko irailak 30.

**Gizarte Lanaren rola
Justizian:** 2025eko urriak 15.

**Mendekotasuna eta
Desgaitasuna:** 2025eko
azaroak 11.

Espetxeetan esku hartzea:
2025eko abenduak 15.

**Esku-hartze soziala genero-
indarkeriako egoeretan:**
2026ko urtarrilak 21.

**Adinekoen bizi-kalitatea ho-
betzea:** 2026ko otsailak 12.

**Gutxiengo etnikoak eta mi-
grazioa:** 2026ko martxoak 12.

Gizarte Lana eta adikzioak:
2026ko apirilak 22.

Adingabeak eta familia:
2026ko maiatzak 18.



ORDUTEGIA:

17:00 - 19:00

IZENA EMATEKO EPEA:

Pilula bakoitza baino
astebete lehenago.

PREZIOA:

Doan. Euskal Autonomia
Erkidegoko eta Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoek diruz lagunduko
dute. Elkargokideentzat eta
aurrekolegiatuentzat soilik.

Prestakuntza-pilulen ziklo
honen helburua da Gizarte
Laneko praktika profesionala
lanbide-jardunerako
prestatzen ari direnengana

hurbiltzea. Saio labur,
dinamiko eta kasu errealetan
oinarritutako saioen bidez,
Gizarte Lanaren esku-hartze
eremu nagusiak jorratuko
dira, eta testuinguru
profesional bakoitzaren
funtzio, profil eta erronka
espezifikoak ezagutzea
erraztuko da.

Aukera ederra da
prestakuntzan ikasitako
teoria Gizarte Langintzako
hainbat sektoretako
eguneroko errealitatearekin
lotzeko.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

5

“Tailerra: lidergoa kudeatzea etikoki eragina izateko eta konbentzitzeko”

JESÚS MARI ELIZALDE

AURREZ AURREKOA

12 ORDU

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-25 pertsona.

TOKIA: Elkargoaren egoitza.

EGUNAK:

1. SAIOA:
2025eko urriak 7.
2. SAIOA:
2025eko urriak 14.
3. SAIOA:
2025eko urriak 21.
4. SAIOA:
2025eko urriak 28.

ORDUTEGIA:

16:30etik 19:30era.

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko irailak 22.

PREZIOA:

46 € elkargokideek edo Gizarte Langintzako ikasle aurrekolegiatuek.

114 € elkargokideak ez diren pertsonak.



Gizarte Lanaren eremuan, lidergo etikoa eta kudeatzeko gaitasuna funtsezko gaitasunak dira pertsonengan, taldeetan, sistemetan eta komunitateetan eragin positiboa izateko. Prestakuntza honen xedea da Gizarte Langintzako profesionalei beharrezko trebetasunak, ezagutzak, teknikak eta tresnak ematea, lidergo kontzientea, eraginkorra eta lanbidearen balioekin bat datorrena gara dezaten.

Ikuspegi praktikoa eta hausnarketa-ikuspegi baten bidez, lidergoaren modu desberdinak —formalak nahiz informalak— ez ezik, pertsonak eta proiektuak modu eraginkorrean

kudeatzeko beharrezkoak diren trebetasunak ere landuko dira. Gainera, eragin eta pertsuasio etikoko taktikak aztertuko dira, esku hartzen dugun inguruneetan aldaketa iraunkorrak eta esanguratsuak sortu ahal izateko.

Proposamen honen helburua da autokudeaketa profesionala indartzea eta erreferente argiak ematea aintzatespenetik, motibaziotik eta konpromisotik abiatuta lidergoa gauzatzeko, gure jardunaren oinarri diren printzipioak, balioak eta idealak alde batera utzi gabe.



+info



Izen-ematea

ONGIZATE PROFESIONALA

1

“Zaintzen kutxa”

NATALIA NAVARRO

AURREZ AURREKOA

ONLINE

10 ORDU

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-21 pertsona.

TOKIA: Elkargoaren egoitza.

EGUNAK ETA ORDUTEGIAK:

1. SAIOA, AURREZ

AURREKOA. 2025eko azaroak 21, ostirala. 16:30-19:30.

2. SAIOA, AURREZ

AURREKOA: 2025eko azaroak 22, larunbata. 9:00-14:00.

3. SAIOA, ONLINE: 2025eko

abendua 10, asteazkena. 17:00-19:00.

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko azaroak 6.

PREZIOA:

37 € elkargokideek edo Gizarte Langintzako ikasle aurrekolegiatuek.

92 € elkargokideak ez diren pertsonak.



Tailer hau sortzeko, kontuan izan da Gizarte Langintzako profesionalok gure zaintza eta autozaintza estrategiak berrikusteko eta berrantolatze denbora eta espazio bat izateko dugun beharra, modu horretan hobetuko baititugu pertsona eta familiei laguntzeko gure modua nahiz gure bizi-kalitatea eta ongizatea.

“Erredura profesionala” eta frustrazioa Gizarte Langintzako profesional askoren ahotan dauden unean, tailerra banakako

eta taldeko erresistentziako erantzun eta estrategia kolaboratibo gisa planteatu da.

Zehazki, tailerrak kutxa bat eraikitze metafora erabiltzen du, kontuan izanik pertsona bakoitzak kutxa pertsonal bat duela (edo eraiki dezakeela), eta kutxa hori zaintza eta ongizatea ematen dioten elementuekin bete dezakeela.



+info



Izen-ematea

(*)

OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN INSKRIPZIO, ORDAINKETA ETA ITZULKETEI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK:

- **Izen-emateak** eskainitako proposamen bakoitzerako emandako inprimakien bidez egitea.
- Izena emandako pertsonen kopurua dauden plazen kopurua baino handiagoa bada, **plazak esleitzeko irizpide** hauek ezarriko dira:
 1. NGLEOko elkargokideak eta aurrekolegiatuak.
 2. Gizarte Langintzaren beste elkargo profesional batzuetako elkargokideak.
 3. Elkargokideak ez diren pertsonak.
 Eta irizpide hori kontuan hartuta, izena emateko hurrenkerak izango du lehentasuna.
- Pertsonaren batek izena eman badu, baina, azkenean, izena eman duen prestakuntzara joaterik ez badu, **prestakuntza hori hasi baino lehen**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du, prestakuntza egingo duten pertsonen datu errealak izateko eta gainerako pertsonei ez eragozteko. Horrela, ikastaroan edo prestakuntza-jardueran benetan zenbat parte-hartzaile izango diren jakingo da.
- **Behin prestakuntzaren dirua kobratuta**, norbaitek baja ematen badu **prestakuntza hasi baino lehen**, ORDAINDUTAKO ZENBATEKOAREN %75 ITZULIKO ZAIO.
- **Behin prestakuntzaren dirua kobratuta**, norbaitek baja ematen badu **ikastaroa hasi ondoren**, EZ DA INOLAKO ITZULKETARIK EGINGO.

GOGORATU!!!

Elkargoak, 2025. urterako, prestakuntza-ekintzen kostuaren **% 60 kofinantzatuko** du.



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZATE LAN GINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

www.trabajosocialnavarra.org

Calle Irunlarrea, 54 – bajo • 31008 Pamplona • Iruñea Navarra / Tlf.: 948 240 401